

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Tiragalerik gabe

BASOA, INGENIARI ETA BASOZALEEN ZAIN ez dagoenari eskerrak! Gure herrian, Usurbilen, Gipuzkoako Foru Aldundiak 700 hektareatik gorako mendi bat beretzat hartua du, berezko jabea duen herriari bueltatu gabe. Irisasi mendia da. Bertan, azken mendeen, basogintza basatienera egin da, hau da, pinua pinua eta pinua. Tarteka beste espezieen batekin ere saioak egin dituzte, baina basogintza lan guztien helburua beti bera izan da: dirua. Sail puska horrek ingurumenarako duen garrantzia inoiz ez dute kontuan izan. Dirua eta dirua.

Beste ezerk zentzarazi ezin eta baso ingeniariari onddo ttipi ñimiño batek aurre egin die. Eta airean dauzka, beldurrak airean. Lurreko onddo horrek eragiten duen gaitzak jota, pinudiak gorritzen eta hiltzen ari dira. Aurki insignis pinua gure burutazioetatik desagertuko da. Baso beltza iraganeko kontua eta basogintzaren historiaren ikerketa gaia izango da.

Irisasin pinudiak bota eta berriro pinua jartzeko

plangintza lotsagarria ezin burutu dute. Lan hori aginduko lukeen politikaria eta zuzenduko lukeen ingeniaria denon algarabazka lirateke. Pinua atera eta soildutako sailak lur gorri daude...

Eskerrak, baina, basoa inoren zain nagituta ez dagoenik. Eta tiragaleak egin beharrik gabe, bertako baldintzetara, onddo tikia tartean, ederki asko egokitutako makina bat zuhaitz eta arbola sail horietan okupak egin dira: arantza beltzak (*Prunus spinosa*), zumarrak (*Ulmus* sp.), maaltzak (*Pyrus* sp.), maspilak (*Sorbus torminalis*), astigarrak (*Acer campestre* eta *Acer pseudoplatanus*), hurritzak (*Corylus avellana*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), haltzak (*Alnus glutinosa*) eta abar, ingeniariaren beldurrak diruaren kopetakotik askatu eta okupaturako mendi-lurretan lagunarte polita topatu dut. Egin berri diegan bisitan poza hartu nuen, indarrean topatu nituen, auzolanean gogotik. Naturalena den kaosera bidean auzolanean.



DIANE EARL



HENRY SALOMÉ-CC BY SA NC



NIKANOS-CC BY SA

Ezkerretik eskuinera: arantza beltza (*Prunus spinosa*), hurritza (*Corylus avellana*) eta haltza (*Alnus glutinosa*), Usurbilgo Irisasi mendiko basoan okupa egin diren espezieetako hiru.



# AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com

